



LAN-ESKAITZA

DEBAGOIENeko GIZARTE KOORDINAZIO ETA MAPEORAKO PROGRAMA OSAGARRIA (%50EKO LANALDIAN) HORNITZEKO TEKNIKARIA

1.- Lanpostuaren izena

Debagoieneko Gizarte Koordinazio eta mapeorako programa kudeatzeko teknikaria

2.- Kontratazio-erregimena (administrazio publikoa)

☐ **Administrazio publikoko lanpostua** (deialdiaren oinarrien arabera: bitartekoa / aldi baterakoa / interinitatea / lan-kontratua)

☐ **Lanaldia:** %50

☐ **Lanlekua:** Debagoiena (udalerrri eta eskualde mailako jarduera)

☐ **Inplikaturako erakundeak:** Mankomunitatea, udalak, eskualdeko eragileak arlo ekosozialekoak, hezkuntza ekosistema, enpresa-sarea, gizarte-eragileak, komunikazio arloko eragileak, kooperatibak.

3.- Lanpostuaren helburua

Debagoieneko Mankomunitateak Debagoieneiko Gizarte Koordinazio eta mapeoa egiteko programa abian jartzeko erabakia hartu du.

Programaren helburua da: aztertzea Debagoieneko eskualdean, bereziki pertsona nagusi eta zaurgarri egoeran dauden herritarren beharrak zeintzuk diren, ondoren, beharrezko erantzun, erabakiak hartu eta tresnak ahalbidetzeko.

Gizarte Koordinazio eta mapeorako programak Debagoieneko Mankomunitatearen baitan jardungo du, honako egiteko hauek aurrera eraman beharko ditu:

A. PERTSONA HELDUENTZAT EDO EGOERA ZAUGARRIAN DAUDEN PERTSONENTZAKO BIDERATUKO DIREN LAN ETA PROIEKTUEN ESKUALDE ESKALAKO AZTERKETA, KOORDINAZIOA, DINAMIZAZIOA ETA LIDERGOTZA SUSTATZEA

☐ Eskualdean inplikaturako eragileen arteko egunerako koordinazioa eta komunikazioa ahalbidetzeko tresnak eratu; parte hartzen duten udal eta proiektua kudeatuko duen Debagoiena Mankomunitatea komunikazio sare horretan txertatuz

☐ Kudeaketa sistema berri arina sortu, eta komunikazio-bide eraginkorrak ahalbidetu dagokion jarraipen sistemak ezarri

☐ Planifikatzen diren jardueren eta helburuen jarraipen zehatza egitea, eta plangintza antzematen diren beharretara egokituz, unean une.

B. SAREAK INDARTZEA ETA KOMUNITATE LANAK SORTU ETA SUSTATZEA

☐ Eskualdeko udalen, gizarte-eragileen, tokiko erakundeen eta herritarren arteko lankidetzak sareak sortu, bultzatu eta sendotzeko, sare-lanak bideratu, eta bide batze bakardadeari aurre egiteko erantzun kolektiboak bilatu eta eraikuntza kolektiboa sustatu.

☐ Herrietako eragileekin konfidantzazko harremanak sustatu, lankidetzarako aukerak hautemanez

☐ Tokiko lidergoak identifikatu eta aktibatzea, proiektu irankor eta jarraia lortzeko urratsak emanez.

C. EKINTZA KOMUNITARIOAK ANTOLATU ETA SUSTATZEA

☐ Parte hatzen duten udalerrietako ekintza komunitarioak planifikatu, koordinatu eta dinamizatzea. Bertan etorkizunean behar diren gutxiengo zerbitzuak identifikatu, eta aurrez egin diren ekintzak herri berrietan txertatuz

☐ Garatutako ekintza bakoitzaren logistikan parte hartu, eta zabalkunde prozesuan laguntzea

D. EZAGUTZAK ETA TRESNAK ZABALTZEA

☐ Egitasmoen inguruko ezagutza sustatu, eta horretarako beharrezko materialak. Jardunbidea egokiak eta eskura dauden baliabideak partekatu, eskura jarri eta zabaltzea

☐ Tokiko baliabideen mapak eguneratu, eta birmoldatu antzematen diren beharrei egokituz

E. INFORMAZIOAREN JARRAIPENA ETA SISTEMATIZAZIOA

☐ Udalerrri bakoitzeko egitasmo desberdinen egoeren etengabeko jarripena egin, sortzen diren aldaketak, beharrak eta esku hartzeko aukerak identifikatuz

☐ Herritarren eta funtsezko eragileen artean inkestak, tresnak eta materialak zabaltzeaz gain bildutako informazioa modu egituratu eta erabilgarrian sistematizatzea. Hartu behar diren erabakietarako informazio xehetu, eta errealia prestatu.

F. PARTE-HARTZE KOMUNITARIOA SUSTATZEA

☐ Herritarrek eta tokiko eragileek proiektu desberdinetako fase denetan parte-hartze aktiboa izan dezaten sustapen lanak egitea

☐ Partaidetzarako oztopoak identifikatzea eta horiek gainditzeko irtenbideak sortu, espazio inklusiboak eta irisgarriak ahalbidetuz.

G. EBALUAZIOA ETA JUSTIFIKAZIOA

☐ Proiektuen jarraipena egin eta barne ebaluazioa egiteko prozesuetan laguntza ematea

☐ Lortzen diren dirulaguntzen jarraipena egitea, eta sor daitezkeen dirulaguntzak identifikatzea.

5) Derrigorrezko baldintzak (betebeharrekoak)

A) Gida baimena eta autoa izatea

B) Titulazioa (nahitaezkoa)

- Soziologia / Gizarte Zientziak
- Lan-harremanak eta giza baliabideak
- Psikologia/Pedagogia
- Gizarte Lana / Gizarte Hezkuntza

C) Euskara (nahitaezkoa)

🔍 Euskara: C2 / 4. Hizkuntza Eskakizuna (Ez badago, 3HE onartuko da)

6) Baloraziozko merezimenduak

A) Esperientzia

Aintzat izango da esperientzia izatea **arlo berean** proiektuak kudeatu, koordinatu, dinamizatu eta ebaluatzeko lanak

B) Gaitasun teknikoak

🔍 Diagnostiko sozioekonomikoa egiteko gaitasuna (datuen bilketa, analisia, interpretazioa)

🔍 Dokumentu estrategikoen idazketa eta egituraketa (planak, txostenak, memoriak)

🔍 Eragileekin lan egitea: koordinazioa, dinamizazioa eta kontraste-prozesuak

🔍 Baloratuko diren konpetentziak:

Koordinazio eta lidergorako gaitasuna.

Plangintza eta proiektuak kudatzeko gaitasuna.

Datuen azterketa eta txosten teknikoak egiteko habilezia.

Komunitate ikuspegia izatea.

“Zerbitzu publikoaren” pentsamoldea eta emaitzetarako orientazioa.

Ziurgabetasunarekin lan egiteko gaitasuna (diagnostikoa → estrategia).

Ordena, irizpidea eta dokumentu kalitate handia.

Eragileak “aktibatze” gaitasuna.

C) Prestakuntza osagarria

- ☐ Politika Publikoetako Masterra / Kudeaketa Publikoa
- ☐ Lan Merkatuko / Enpleguko Masterra
- ☐ Parte-hartzeari eta prozesuak errazteari buruzko prestakuntza

D) Esperientzia espezifikoak

- ☐ Datuekin benetako **diagnostiko sozioekonomikoak** egin izana.
- ☐ **Proiektuen gidaritza edo lidergoa** eraman izana
- ☐ **Proiektuen bideragarritasunean** jardun izana, eta beraien segimendua egiteko adierazle eta aginte-koadroak egin izana
- ☐ **Zuzenbide administratiboan** jakintza (administrazio publikoan jardun izana)
- ☐ Gaitegi espezializatuan ezarritakoekin zerikusia duten lanetan jardun izana

E) Tresnak eta gaitasun digitala

- ☐ Word maila aurreratua
- ☐ Aurkezpenak (PowerPoint/Slides) eta dokumentazio profesionala

7) Hautaketa-prozesua (administrazio publikoan egokitua)

Hautaketa-prozesuak, deialdiaren oinarrien arabera, honako faseak izan ditzake:

1. Merezimenduen balorazioa (lehiaketa)
2. Proba teknikoa (oposizioa)
3. Elkarrizketa egituratua / gaitasun-proba (balorazio osagarria)

8) Ebaluazio-irizpideak

A) Merezimenduak – %20

- ☐ Esperientzia egiaztatua aurrez adierazitako gaitetan: **%10**
- ☐ Prestakuntza osagarria egiaztatua: **%10**

B) Proba teknikoa – %55

- Gaitegi orokorrean oinarritako test froga (20 galderako galdetegia)
- Froga praktikoa (gaitegi espezifikoan oinarrituta) edo test froga (oraindik zehazteke baina www.debagoiena.eus web orrialdean adieraziko da)

C) Elkarrizketa – %25

- ☐ Koordinazio eta dinamizazio gaitasuna
- ☐ Idazketa eta komunikazio argitasuna
- ☐ Administrazio publikoaren testuinguruan lan egiteko egokitasuna

- ❑ Lidergo tekniko (politika/eragile anitzekin)

9) Dokumentazioa (aurkeztu beharrekoa)

- ❑ NAN / identifikazioa
- ❑ Titulu akademikoa (edo baliokidea)
- ❑ Euskararen 4PL egiaztagiria (Horren ezean 3HE egiaztagiria)
- ❑ Lan-bizitza eta/edo esperientzia egiaztatzen duten ziurtagiriak
- ❑ Curriculum Vitaea (Europass edo antzekoa)
- ❑ Prestakuntza osagarrien egiaztagiria
- ❑ Administrazioak eskatzen dituen gainerako agiriak

10) LANBIDE bidez egiten den hautaketa prozesua gainditzen duten hautagaiek, dagozkion tasak ordaindu beharko dituzte hautaketa prozesuaren hurrengo ariketetan parte hartzeko. Informazio gehigarria, www.debagoiena.eus web orrialdean argitaratuko da, azterketaren inguruko informazioarekin batera.